

2026ko APIRILA

BERMEON ZER?

Apirilak 5

Aberri Eguna

Apirilak 17

**Errezitaldia: Haritzetatik
ezkurak, ezkurretatik
haritzak**

Apirilak 30

**'Kolapsoa' antzerkia,
Jon Ander Urresti**

BERMEOKO



HAURRESKOLA

Matrikula zabalik / Matriculación abierta
(2025 eta 2026an jaioetakoak)



ESKARIAK AURKEZTEKO DATAK/MATRICULACIÓN (ONLINE ETA AURREZ-AURRE):

APIRILAREN 13TIK MAIATZAREN 4RA

DEL 13 DE ABRIL AL 4 DE MAYO

Debalde guztiouztat

Informazio gehiago/más información

www.haurreskolak.eus

bermeo.bermeo@haurrekolak.eus



946880563

ATE IREKIAK APIRILAREN 16AN ARRATSALDEKO 16:00ETAN

Puertas abiertas el 16 de abril a las 16:00

ETORRI NAHI BADUZU, DEITU. CONFIRMAR ASISTENCIA

PORTUZARRA

ZIRKULAZIORAKO ITXIKO DA



EGUNAK:

- ✳ **Martxoaren 27tik apirilaren 12ra bitartean:**
13:00etatik 18:00etara itxita
- ✳ **Aste Santu, uda-sasoi (ekainaren 15etik irailaren 20ra), Gabon-sasoi (abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra) eta jaiegunetan:**
13:00etatik 18:00etara itxita.
- ✳ **Urteko asteburu guztietan:**
Bariku, zapatu eta domeketan, 13:00etatik 18:00etara itxita.

OHARRA:

Lehenengo fasean hesiak erabiliko dira. Aurrerago kamera bidezko zaintza aurreikusten du udalak.

Portuzarra aisialdirako gune atsegina izateko hartu dugu erabaki hau. Gozatu dezagun lasai eta zabal bertan.

05 **Zapateria**
Goiko plazan
12:00etan

EKITALDI INSTITUZIONALA
ABERRI EGUNA
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



07 **Martitzena**
Gizarte eta
Kultura
Etxean
17:30-19:30

TAILERRA
MEMORIA BIZIA, MEMORIA KOLEKTIBOA,
argazki pertsonalen bidez

Bizitza osoan, argazki asko gorde ditugu: familia-argazkiak, laneoak, etxeoak, jaietakoak, bidaietakoak... Argazki horietan guztietan gure bizitzak daude. Tailer honetan, lasaitasunez eta patxadaz elkartuko gara argazkiak begiratzeko, oroitzapenak partekatzeko eta elkarri entzuteko

Apirileko martitzen guztietan, leku eta ordu berean

Ez da izenik eman behar

65 urtetik gorako emakumeei zuzendua

Trebatzaileak: Ainhoa Resano Melado eta Patricia Laiseka Garcia

Informazioa: 625 381 989 eta 667 922 967

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



BISITA GIDATUAK GAZTELUGATXEKO SAN JUANERA

APIRILAREN 2TIK 6RA

Bisita honetan, bermeotarren sinesmen, erritu eta ohituren bidez, Gaztelugatxeko San Juanen nortasuna hobeto ezagutzeko aukera izango du bisitariak eta baseliza ere bisitatuko du, Gaztelugatxeko San Juan Bermeoko zati eta esentzia baita.

Aldi berean, Gaztelugatxeko San Juaneko ingurumen-berezitasunak ezagutuko ditu. Ingurune babestu hori guztion artean zaindu behar dugu, eta zerbitzu honekin Gaztelugatxeko San Juaneko esperientzia bultzatu gura dugu, ikuspegi ekoturistiko batetik.

Prezioa: orokorra 10 €/ 6-16 urte bitartekoak 5 €/ 6 urtetik beherakoak 1 €

Erreserbak egiteko: www.bizibermeo.eus

Aste Santuko eskaintza turistikoa: www.bizibermeo.eus

Informazio gehiago Bermeoko Turismo Bulegoan: 94 617 91 54 turismoa@bermeo.eus

Orduak: 10:00 eta 12:00

Irteera: Lamerako autobus geltokia

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

11

Zapatua

*BREE elkartean,
Esparru kalea 1
08:00-19:00*

III. TOW TXAPELKETA

THE OLD WORDEKO III.
TXAPELKETA

Warhammerren joko klasikoenaren txapelketa

Izen-ematea eta informazio gehiago:

gtbermeotow@gmail.com

Ateak zabalik izango dituzte kuxkuxeatzera joan
nahi dutenentzat

Antolatzailea: **BREE elkarte**



Goiko plazan

09:00-19:00

EKITALDIA

MERKATU TXIKIA

Birziklatu, berrerabili, aldatu, oparitu...

Eman irteera eta bizia sasoi batean

erositako gauzei

Antolatzaileak: **Haitz Nagusidxe**

eta Bermeoko Udala



Kapillan

21:00etan

MUSIKA

KONTZERTUAK

Sealed Room eta LBM

Sarrera: 8 €

Antolatzailea: **Nuntxaku**



12

Zapatua

*Areneko
Kiroldegian*

KIROLA

ESKUBALOIA

Kadete neskak: Renteria – Apalategi Errotabarri

13

Astelehena

*Liburutegian
18:00etan*

GAZTELANIAZKO IRAKURLE TXOKOA

Liburutegiko erabiltzaileek antolatutako txokoa; gaztelaniazko
materiala irakurtzen dute

Antolatzailea: **Liburutegiko erabiltzaileak**

16

Eguena
Gizarte eta
Kultura Etxean
18:00etan

BILERA

SAN JUAN BEZPERAREN ANTOLAKETA

Herriko elkarteak eta herritarrek gonbidatuta daude, San Juan bezpera antolatzeko bilerara

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Liburutegian
18:15-19:45

IRAKURLEEN TXOKOA

'PUSKAK', Irene Pujadas

Itzulpena: Amaia Palauza

Egunerokoan edonori gertatzen zaizkionak dakartzate hogeita bat istorio labur hauek: puskatzen diren jaioberriak, merendolak hil hurrenekin, euli matazak dantzan, Johnny eta Jenny, Jenny eta Johnny, amaren atun-latak eta tomate-poteak, sudur berria duen senar ohia, edan eta elkar larrutzeko geratzen diren señoarak, herrixketatik ihesi doazen bandalo alegerak. Umore zantarez eta harridura dirdiratsuz blai dator Irene Pujadasen lehen liburua

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



17

Barikua
Liburutegian
18:00etan

FILM EMANALDIA

TXIKIZINE

Umeentzako filma egongo da umeentzako liburutegian

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Erroxaeren
lokalean
19:00etan

EKITALDIA

BINGO

Antolatzailea: **Erroxa Eamakumeen Elkartea**



17 Barikua
Nestor
Basterretxea
aretoan
20:00etan



ERREZITALDIA

HARITZETATIK EZKURRAK, EZKURRETATIK HARITZAK

200 urte. Bi mende. Arranotegi eta Mañu auzoetan duela 200 urte hasi ziren baserriak eraikitzen. Are gehiago, Arranotegiko eta Mañuko baserririk gehienak XIX. mendearen lehen zatian eraikiak izan dira. Baserri horiek eraiki zituzten asko Gipuzkoako Goierritik etorritako artzainak izan ziren. Amezetatik. Ataundik. Idiazabaldik. Lazkaoetik. Zaldibiatik... Herriotatik iritsi ziren abizen hauek Arranotegira eta Mañura: Aiestaran, Aranburu, Armendariz, Arruabarrena, Elgezabal, Erauzkin, Irastorza, Kortazar, Larrabaster, Maiz, Mendizabal, Sasiain... Errezitaldi honetan bi auzo horien 200 urteko historia dakigunaren zertzelada batzuk azalduko dira. Eta hori, batik bat —ez soilik—, egingo da ustez Mañuko baserri bateko ganbaran aurkitutako gutunak irakurritz

Errezitatzaileak: Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena eta Irati Goikoetxea Asurabarrena

Kantua: Aire ahizpak

Musika (Zango-biola): Leire Alonso Allué

Testua: Josu Penades Bilbao

Sarrera: doan, aforoa bete arte

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

18 Zapateria
Artza
frontoian
10:00-14:00

SEME-ALABEN ETORKIZUNA AUKERATZEN LAGUNTZEKO JARDUNALDIA

GOI ETA ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN AURKEZPENA

Goi eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako (LH) aukera guztiak ezagutzeko jardunaldia. Helburua da batxilergoko ikasleen familiei tresnak ematea seme-alabak bere etorkizun akademiko eta profesionala aukeratzen laguntzeko. Jardunaldian, Euskal Herriko prestakuntza-eskaintza, irteera profesionalak eta orientazio praktikoa azalduko dira.

INFO + www.gizbermeo.blogspot.com - 688 819 950

(WhatsApp) - 946179158 - giz@bermeo.eus

Antolatzailea: **Bizkaia Gazteak Busturialdea**

Areneko
kiroldegian
Goizez

KIROLA

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

II. Eskolarteko Xixili Txapelketa

Antolatzailea: **Xixili gimnastika taldea**



ASTE SANTUA

Egun bateko tailerrak:

KALISTENIA

Apirilak 9

SKATE TAILERRA

Apirilak 8 eta 9

ESKALADA

Apirilak 10

AEROYOGA GAZTEENTZAT

Apirilak 7 eta 8

TRABESIA

Apirilak 11: hastapena

Apirilak 6: trebakuntza

Izen-emateak
web orritik eta
app-etik.

Mendi Martxa

Bermeoko hiru handiak

Data: Apirilak 12

Irteera: Taraska plazatik

Ordua: 9:00



Informazio gehiago eta izen-emateak



Bermeo Zirkolak

18

Zapatua
Arrantzaleen
Museoan
11:30-13:00



UMEENTZAKO TAILERRA

ERAIKI ZURE DORRETXE!

Zatoz sormen tailer honetaz gozatzeraz, non txikienek Bermeoko historia modu dibertigarrian deskubrituko duten. Gure dorretxe enblematikoaren paperezko maketa sinestezina egingo dugu.

Erreserbatu lekua eta eroan zure gotorlekua etxera!

Adina: 4-12 urte

Informazioa eta erreserbak:

94 688 11 71 // arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba beharrezkoa da, aforo mugatua.

Prezioa: 1 €

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoan**

Kalez kale
12:00-15:00

MUSIKA

BERMEOKO VI. TRIKI-KANTU EGUNA

Arrekatxutxa trikitixa taldea eta Kanta Kanta Lorue Kantujiran batuko gara. 300 lagun baino gehiagok alaitasunez beteko ditugu herriko kaleak!

Ibilbide ezberdinetan antolatuko gara, eta, amaieran, 14:30ean, Lameran elkartu eta, musikarekin batera, kantuz eta dantzaz goizari amaiera emango diogu.

Gonbidapena luzatzen dizuegu! Batu lagunekin, etxekoekin edo zu zeu eta... erdu geugaz! Ez zara damutuko!

Kantatzen duen herria, bizirik dagoelako!

Talde gonbidatuak: Trikitixa taldea (Arrasate) eta Urdaibai Kantagunea (Busturialdea)

Antolatzaileak: **Kanta kanta lorue eta Arrekatxutxa trikitixa taldea**

Areneko
kiroldegian

KIROLA

ESKUBALOIA

Gazte mutilak: AUG – Trapagaran Bizkaia

Kapillan
21:00etan

MUSIKA

KONTZERTUAK

Extinction of mankind, psylocybe eta Urbandgrind

19 Domeka

KIROLA

MENDI IRTEERA

Txindokira irteera

Informazio gehiago: Sollube 707 mendizale taldea

Antolatzailea: **Sollube 707 mendizale taldea**

Santa Maria
elizan
11:30-13:30

KIDENDA

BIDEZKO MERKATARITZA

Antolatzailea: **Kidenda**

Arrantzaleen
Museoan
11:30-13:00

BISITA GIDATUA

ERTZILLA DORRETXEAREN SEKRETUAK

Zatoz gurekin monumentu nazional honen historia eta arkitektura sakonetik ezagutzeko bisita gidatu elebidun honetara. Aukera bikaina izango da gure dorretxeko bazterrak arakatu eta Bermeoren bihotzean duen garrantzia ulertzeko. Zure zain gaude!

Informazioa eta erreserbak:

94 688 11 71 // arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba beharrezkoa da, aforo mugatua.

Doan

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoan**



Herriko txoko
batean
14:00etan

ELKARTASUN BAZKARIA

BERMEOKO CARITASEN ALDE

Bazkaria + musika + testigantzak

Prezioa : 25 €

Izena emateko azken eguna: apirilak 12, parrokian

Antolatzaileak: **Santa Maria eta Santa Eufemia elizak**



20 Bermeoko
24 Herri
Eskolako
liburutegian
17:00etatik
aurrera

LITERATURA ASTEA

KONTATU III. Literatura astea

Antolatzailea: **Bermeoko Herri Eskola**

21 **Martitzena**
Gizarte eta
kultura
etxeko
hitzaldi
aretoan
19:00etan

HITZALDIA

'DESAZKUNDEA: PROGRAMATUA ALA KOLAPSOA?'

Apirilaren 30ean Bermeon izango den KOLAPSOA (Jon Ander Urresti) antzezlanaren harira, desazkundearen inguruko hitzaldia emango da, gaian sakondu eta eztabaida sustatzeko asmoz.

Antzezlanaren sorkuntza-prozesuan, artistekin batera, gaian adituak diren ikerlari bermeotarrek parte hartu dute. Hitzaldian, desazkundearen zergatiak eta aukerak azalduko dira, krisi klimatikoaren mugak ikuspegi ekonomiko eta ekosozial batetik aztertuko dira, eta hausnarketa kolektiborako gonbita luzatuko da.

Hizlaria: Aitor Marcos, EHuko ekonomia irakaslea

Antolatzailea: **Jon Ander Urresti**

22 **Eguaztena**
Gizarte eta
Kultura
Etxean
18:00-20:00

TAILERRA

BARREAREN PLAZERA

Barrea emakumearen lehen matxinada da. Historian zehar kontrolatua eta isilarazia izan da; horregatik, barrea berreskuratzea ekintza askatzailea ere bada. Ikastaro honetan, barrea izango da ardatza: gorputzetik eta umoretik abiatuta, autoestimua, konfiantza eta emakumeen arteko babesa indartzeko. Horretarako, gune segurua eta gozoa sortuko dugu elkarrekin barre egiteko, askatzeko eta gozatzeko

18 urtetik gorako emakumeei zuzendua

4 saioko tailerra da, eguenetan

Trebatzailea: Bea Larrañaga

Ezinbestekoa da izena ematea: berdintasuna@bermeo.eus
edo 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

IRAKURLEEN TXOKO FEMINISTA


'OIHAN HITZEAN MUNDUA', Ursula K. Le Guin

Kolonizazio bortitz batek athshetarren bizitza baketsua hautsi du. Selver ameslariak gidatuta, azkar baino lehen ikasiko dute haiek ere bortxaren mintzaira, euren munduak biziraunen badu. Nora darama itzulbiderik gabeko biolentziaren hautuak? Ursula K. Le Guin literatura fantastikoak XX. mendeak eman duen idazle nabarmenetariko bat da. Hau da euskarara itzulitako bere lehen liburua

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



Liburutegian
18:15-19:45



23 **Eguena**
Liburutegian

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Egun osoan liburua eta lorea opari liburutegi erabiltzaileen artean

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



*Turismo Bulegoa
berriro
Liburutegiko
eraikinean*

2026KO ASTE SANTUA

*ASTE SANTUKO 5 JAIEGUNETAN BISITAK
GAZTELUGATXERA AUTOBUSEZ
ETA GIDARI TURISTIKOAREKIN*

ESKAINITZA OSOA HEMEN



www.bizibermeo.eus

23

Eguena
Arrantzaleen
Museoan
18:00-20:00



MAHAI INGURUA ITSASOKO OGIBIDEAK

Aldi baterako erakusketari lotutako konferentzia zikloa
Inoiz galdetu diozu zeure buruari zelan heltzen zen arraina portu
onenetatik mundu erdiko mahaietara, egoera bikainean?

Asier Romero eta Amaia Apraizen eskutik Olatuaren enbatean
erakusketara bisita gidatu berezi baten ostean, Ondarroako
enpakatzaile eta neskatilekin tarte bat igaroko dugu

Hitzaldia baino gehiago: indarraren, trebeziaren eta memoriaren
zuzeneko erakustaldia da

Informazioa eta erreserbak:

94 688 11 71 // arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba egitea beharrezkoa da, aforo mugatua.

Doan

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoan**

Nestor
Basterretxea
aretoan
18:30ean

HITZALDIA

'HERIOTZA Gizalegezko bizitzaren amaiera'

Hizlaria: Julio Gomez (Santurtziko Ospitaleko azken zainketaren
arduraduna). Gaztelaniaz

Antolatzailea: **Osasun Pastoraliza**

24

Barikua
Gizarte eta
Kultura
Etxean
17:30-19:30



TAILERRA

PLENOPAUSIA TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA

Menopausia ez da soilik haurdun geratzeko ezintasuna agertzen
den garaia; klimaterioa bizitzako etapa esanguratsua da. Hala ere,
sarritan "krisi" gisa aurkezten zaigu

Tailer honetan klimaterioa sakonago ezagutuko dugu, haren
mugak eta aukerak aztertuz. Halaber, ezinegonaren eragin dezaketen
emozioak kudeatzeko estrategiak landuko ditugu, eta haurdunalditik
haratagoko sexualitatea jorratuko dugu, etapa hau modu
osasungarriagoan bizitzeko. Esperientziak partekatzeko errespetuzko
gunea izango da

40-55 urte bitarteko emakumeei zuzendua

Trebatzailea: Ana Valles

Hurrengo saioak: maiatzak 29 eta ekainak 19

Ezinbestekoa da izena ematea: berdintasuna@bermeo.eus
edo 688 638 449

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoan**

24 **Barikua**
Liburutegian
18:00etan



IPUIN KONTALARIA
'LIBURUA, HORIXE
ALTXORRA!'
Alberto Burgos

Liburu bat itxita dagoenean triste dago. Guk, ordea, aukera ederra daukagu liburuak poz-pez jartzeko. Obran zehar erabiliko ditugun liburuek euren mamia erakutsiko digute: batzuek poztasuna, beste batzuek elkartasuna, laguntasuna...

4 urtetik gorako umeentzat (guraso barik)

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Erroxa-peren
lokalean
19:00etan

FILM EMANALDIA
'A TODO TREN'

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**

25 **Zapatua**
Gizarte eta
Kultura
Etxean
10:00-13:00



TOPAKETA
EMAKUME IZATEAREN IKILBIDEA

Topaketa honetan emakumeak bizi dituen etapak uztartuko ditugu osasun arloko hainbat ikuspegitik. Amaren jaiotzak dakarren emakumearen metamorfositik hasi eta menopausiarainoko bidea arakatu nahi dugu. Lehen elkartze honetan jaiotzaz mintzatuko gara; izan ere, haurra jaiotzen denean ama ere jaiotzen delako eta harekin batera familia edo zaintza sare berri baten hasiera ere bada, familia eredu anitzetan gorpuzten dena. Elkartuko zara gurekin?

Trebatzaileak: Ainhoa Zulueta (Emagina), Kata Legarra (Emagina), Jone Candina (Fisioterapeuta eta osteopata pediatrikoa), Leire Meabe (Fisioterapeuta eta osteopata pediatrikoa), Haizea Caminos (Haginlari pediatrikoa)

Emakume eta familiei zuzendua

Ez da izenik eman behar

25

Zapatua
Nestor
Basterretxea
aretoan
12:00etan

AGERRALDIA GOBERNU TALDEAREN AGERRALDIA

Herritarrei informazioa eman eta
etorkizunera begirako helburuen
berri ematea

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

*Areneko
kiroldegian*

KIROLA ESKUBALOIA

Haurrak mutilak: Gaztelu – Trapagaran

Kadete mutilak: Aritxatxu – Berdezurigorri B

Kadete neskek: Tribis – Uribe Urduliz



Zapatua
Batzokian
19:00-00:00

TOPAKETA FLAMENKO ETA SALSA TOPAKETA

Txo Sevilla eta Dantzaz Blai taldeen ekitaldia,
Josepa kale kaleren laguntzarekin

Dantza erakustaldia, zuzeneko gitarrista eta dantza
soziala

Antolatzaileak: **Txo Sevilla eta Dantzaz Blai**

Laguntzailea: **Josepa kale kale**

26

Domeka
Taraskatik
09:30-14:30

IBILALDIA INGURUETATIK OINEZ

Ibilbide zirkularra, zailtasun
gutxikoa, edonork egiteko
modukoa

Doan

Izen-ematea: 607 609 580 (izena
emateko azken eguna apirilak 23)

Antolatzailea: **Bermeoko Berbalagun**



30

Eguena
Erroxaperen
lokalean
18:30ean

Bermeoko
Kafe
Antzokian
20:00etan



HITZALDIA

'ETIKETAK: SEGURTASUNEZ ELIKATU'

Hizlaria: Kontsumobide

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**

ANTZERKIA

'KOLAPSOA', Jon Ander Urresti

Sinopsia: Botereak bere kontakizunak saltzen dizkigu: elkarri kontra egiten dioten fikzioak, bata bestearen barruan sartzen direnak, eta, azkenean, gure bizitza osatzen dutenak. Sinesgarriak izaten saiatzen gara, erritmoari jarraitzen; beti pixka bat harago, beti pixka bat lehenago...

Askok, kolapsoaz hitz egitean, sistema osoaren amaiera aipatzen dute. Guk, ordea, erantzuten dugu fikzioa infinitua eta moldakorra dela. Stocka etengabe berritzen da, joera berriak etengabe agertzen dira. Agian ezin izango dugu apokalipsia lehen lerrotik ikusi, baina irudimenaren eraikuntza ahul hau zabaldu dezakegu, eta haren zentzugabetasunaz barre egin

Ekoizpena: Jon Ander Urresti

Zuzendaritza: Matxalen de Pedro

Interpreteak: Maite Mugerza, Txubio Fernandez de Jauregi eta Jon Ander Urresti

Sarrera: 9 € (deskontudunak 6,75 € leihatilan bakarrik) Salgai apirilaren 20tik aurrera Gizarte eta Kultura Etxean eta bermeo.eus web gunean

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza

SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA) _____ 900.840.111

AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat. Doakoa, ez da fakturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI
ARRETA OSOA (24 ORDU) _____ 900.840.977

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA _____ 946.179.160

- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

**INDARKERIA MATXISTARI AURRE
EGITEA GUZTION ARDURA DA**



Kultur Zerbitzuak

LUDOTEKA

6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat
Bariku eta zapatuetan: 17:00-20:00
Gizarte eta Kultura Etxean

LUDOTEKA - APIRILA
6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat

10	Gimkana	
11	Mahai jokoa	
17-18	Oihalezko papirina	
24	Buztin tailerra	
25	Goiko Plazan marrazki lehiaketa	

Barikua eta Zapatua
17:00 - 20:00
BERMEOKO UDALA

ASTE SANTUKO EKINTZAK
6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat
BERMEOKO UDALA

7	Dantza tailerra	
8	Sukaldaritza	
9	Irteera - Txatxarramendi uhartea	

17:00 - 20:00

BIZKAIBUS ZERBITZU BEREZIAK GAZTELUGATXERA

Martxoaren 28tik apirilaren 12ra bitartean, zerbitzu bereziak jarriko dira Bakiotik Bermeora, A3518 eta A3527 lineekin konbinazioan.

Zerbitzuaren hasiera Bakioko Bentalde geralekua izango da, eta Bermeoko Lameraraino helduko da.

A3524 linearen ordutegiak hauek izango dira:

Bakiotik: 09:30 - 10:30 - 11:30 - 12:30 - 13:30 - 14:30 - 15:30 - 16:30 - 17:30 - 18:30 - 19:30.

Bermeotik: 10:00 - 11:00 - 12:00 - 13:00 - 14:00 - 15:00 - 16:00 - 17:00 - 18:00 - 19:00 - 20:00.

Gaztelugatxetik honako ordu hauetan pasatuko da (kontuan hartu bertatik pasatzeko ordua ez dela zehatza): Bermeotik doan autobusa, orduro, eta laurdenetan; Bakiotik doan autobusa, orduro, laurden gutxiagotan.

GIZ

GAZTEENTZAKO IRTEERA: 025 REACTION BILBO - LED jokoan gunea

Salto egin, eskala egin, argitu enigmak eta egin barre zure lagunekin batera. Zelan? Sartu 025 Reaction jokoan eta bihurtu zure partidaren heroi!

6 areto desberdin, areto bakoitzak bere gaiak, erronkak eta zailtasun-mailak ditu, esperientzia beti bakarra izateko!

Noiz? Apirilak 11, zapatua - 16:00-20:00

Adina: 10-14 urtekoak (2012-2016an jaiotakoak).

Izen-ematea: GIZen, plaza kopurua bete arte. Plaza kopuru mugatua

OHARRAK: Plazak esleitzeko zozketa egingo da. Zozketak emango du eskainitako plazak adjudikatzeko hurrenkera. Plazarik lortzen ez duten pertsonak itxarote-zerrendan sartuko dira, zozketaren hurrenkera berean. Bermeon erroldatutakoek lehentasuna izango dute.

INFO + eta izen-ematea:

www.gizbermeo.blogspot.com - 688 819 950

(WhatsApp) - 946179158 - giz@bermeo.eus



BIDAIA TEKA

Mundu osoko gidak zure esku Aste Santuko bidaiak eta oporrak prestatzeko!

Bidaia gidan 15 eguneko doako mailegua. Eta, gainera: bidaietako aldizkariak, ostatuak, kanpinak, gazteentzako nazioarteko txartelak: aterpekide txartelak, ISIC, ITIC...

INFO + www.gizbermeo.blogspot.com



XAKE ESKOLAK

10 urtetik gorakoentzat

Barikuetan, 17:00etatik 18:00etara,
Gizarte eta Kultura Etxean

10-14 urte: 15 € hilero

14tik gora: 20 € hilero

INFO + excipiente@hotmail.com eta

688 819 950 (WhatsApp) - 946 179 158

giz@bermeo.eus



ERAKUSKETAK

Berhaz Bulegoan

JAVIER TORREREN 'PINTURAZ GOZATZEN'

Bermeo eta itsasoarekin lotutako paisaiak beti ageri dira bere artelanetan. Argazkietan inspiratzen da eta bere artista kuttunen lanak erreproduzitzen ditu.

Bulegoko ordutegia:

Astelehenak, eguaztenak eta barikuak:
08:00-15:00

Martitzenak eta eguenak: 08:00-14:00
eta 16:00-18:00

Apirilera bitartean



Arrantzaleen Museoa

'OLATUAREN ENBATEAN. EMAKUMEAK ETA ITSASOA XX. MENDEAN', ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

Zalantzarik gabe, ezin da gure herriko historia hurbila eraiki emakumeak, lan-munduan ez ezik, familian ere izan duen funtsezko papera kontuan hartu barik, rol horrek Bermeo eraikitzea eta garatzea ahalbidetzen baitu.

94 688 11 71

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Martitzenetik zapatara: 10:00 – 16:00
Domeka eta jaiegunak: 10:30 – 14:30
Astelehenak itxita

Aste Santuko ordutegi berezia
Apirilak 2, 3 eta 4: 10:00-19:00
Apirilak 5 eta 6: 10:30-14:30

Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa



BEHARGINTZA

Enpresentzako laguntza zerbitzua

Bizkaiko Foru Aldundiko “Bizkaia Orekan Sakonduz” programaren eta Bermeoko udalaren laguntzaren bitartez, ondorengo arlo desberdinetan aurrera egiteko laguntza DOAN:

- Trantsizio ekologikoan (deskarbonizazioa, energiaren aurrezteak, araudia...)
- Digitalizazioan
- Merkatu berrietara sarbidea
- Enpresaren arlo desberdinetan aurrera egiteko laguntza-tutoretza eta diagnostikoa
- Berrikuntzan
- Errelebo eta pertsonen hautaketan

Lan-bilaketa eta lan-eskaintzen kudeaketa

Lana bilatzen bazabiltza edota zure enpresarako gure eskualdeko pertsonaren bat bilatzen bazabiltza, BEHARGINTZAN lagunduko dizugu.

Orientazioa eta formakuntza aukerak

Lan merkatutarako zure aukerak, gaitasunak hobetu edota laguntza behar baduzu, gaitasun digitaletan eta laneratzeko prestakuntzan dauden aukeren inguruan lagunduko dizugu.

Ekintzailetza

Zure enpresa sortu edo negozioren bat zeureganatu nahi baduzu, eta dauden dirulaguntza eta aholkularitza jaso.

KZ GUNEA



AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Apirilaren 7tik 15era: 11:00-13:00. Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi (gaztelaniaz). 14 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Apirilaren 14^{an}:
13-30-15:30 / 15:30-17:30

Zubiaur tar Kepa 26-28 . 1. solairuan
(udal-azokan)

Tel.: 944033325. www.kzgunea.eus
tutor.bermeo@kzgunea.net

EUSKERA SAILA

Nagusien antzerki tailerra


Urritik ekainera bitartean
Eguaztenetan, 19:30etik 21:30era
Info+: www.bermeon-euskaraz.eus,
Berhaz eta Euskera Saila



ZESTA PARTIDUAK

Domeka arratsaldeetan zesta
puntako partiduak
Artza frontoian
17:00-19:00

Antolatzailea: Bermeoko Zesta Eskola



HEGALUZE SARIA

XXIX. Hegaluze Sarirako hautagaien proposamenak aurkezteko epea, apirilaren 1etik 19ra.

- Hegaluze Sariak ekintza puntual edo jarraipen profesional bat saritzen du, eta Bermeoren izena zabaltzeko eta goratu duenari edo herriaren alde lan egin duenari ematen zaio.
- Saria pertsona, erakunde, elkarte, entitate, enpresa edo proiektu batek jaso dezake, eta proposamenen artean arlo guztietako ekintza motak aurkeztu daitezke: kirola, enpresa, kultura, gizarte, ekonomia...
- Proposamenak orri batean aurkeztu beharko dira, aukeratuaren datuekin eta zergatik aukeratu den azalduta.
- Proposamenak bi modutara aurkez daitezke: Bermeoko Udal Turismo Bulegoan edota turismoa@bermeo.eus posta elektronikora idatzita.



Gaztemunduri Ateak Ireki 2026

Lehenengo aldiz, Argentina, Uruguai eta Australiako euskal jatorriko gazteak Busturialdea-Urdaibaira etorriko dira ekainaren 27tik uztailaren 19ra.

18 eta 25 urte bitarteko gazteak dira, eta harrera-familiak behar dituzte hiru astez etxean hartzeko eta gure egunerokoa eurekin partekatzeko.

Esperientzia parebakoa da:

- Munduko euskal gazteak ezagutzeko
- Euskaraz eta kulturaz bizitzeko
- Etxe koentzat ere aberasgarria izateko

Animatu eta eman izena: <https://www.ateakireki.eus/urdaibai/>
Zure etxeak mundura leiho bat zabaltzeko!



ZINEA

NESTOR BASTERRETXEA ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo Zabaltzen APPan eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

- * Abisuak
- * 8 urtetik beherako umeak nagusi batekin sartu beharko dira
- * Areto barruan jarrera desegokia daukan ikuslea kanporatua izango da

SARREREN PREZIOA:

Zapatu eta domeketan: 6,00 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

*65 urtetik gorakoentzat 2 €

Umeen filmak: 4,50 €

ORDUTEGIA:

NAGUSIEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean

Astelehenean (ikuslearen eguna):

19:00etan eta 21:30ean

UMEEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 17:00etan

*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak direnean.

Umeentzako filmak

Abuela Tremenda

Super Mario Galaxy (bi asteburutan)

Nagusientzako filmak

Aída y vuelta

Calle Málaga

Laponia

*Asteburu osoan: La familia Benetón +2



Maiatzean:

- Arrain Azoka
- Bizkaiko Dantzari Eguna
- Warhammer 40.000 VII. Lehiaketa
- "Esnatu ala hil" hitzaldia
- Bermeo Uria Ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia

Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

94 617 91 57

kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

